Kanala

Oindolar, Astabizkar eta Orbara mendiak mendi direnetik, euria erruz jaitsi izan da mendi horien hegaletan behera, ur-biziko errekasto basatiak sortuz.
Errekastoak, garai batean, Leitzaran errekan itotzen ziren.

1904an, Billabonako Udalak herri-lur horiek "Sociedad Hidroeléctrica Ibérica"-ri saldu zizkion, ur muker haiek bildu eta, uraren indarraz baliatuz, energia elektrikoa sortzeko. Helburu harekin eraiki zituzten kanal eder hau eta Bertxin Txiki haitz-muinoko presa. Haitz-muino horretatik jaisten dira mendizaleak, pausoa mila eskailera-maila sonatuetan pausatuz eta Bertxingo zentraleko turbina-hegalekin bat egitean minutuan mila litroko ur-txorrotak sortzen duen hotsa entzunez. Kanalaren ondoko baso-bideak naturaren bihotzera garamatza.

Sarbideak

Informazio orokorra

Festak:
Maiatzak 15: San Isidro (Amasa), baserritarren eguna.
Uztailak 25: Santiago eguna, Herriko Festa Patronalak.
Uztailak 31: Inazio deuna.
Uztailean: "Garagardo azoka".
Azaroak 11: San Martin (Amasako festak). Aurreko ostegunean "pilasko-jokoa" ospatzen da.

Zerbitzuak:

Udaletxea:	943 692100
Kultur Etxea:	943 691655
Tolosaldea bus (autobus zerbitzua):	943 650621
Taxi:	943 691838
Autobus zerbitzua TSST:	943 361740
RENFE geltokia	
Jolas parkea	
Frontoia	

Jatetxeak:

Alustiza:	943 690361
Arantzabi:	943 691255
Itzalpe:	943 690623
Olaederra:	943 691307
Sagastiberri:	943 692365

Nekazalturismoak:

Alustiza:	943 690361
Urresti:	943 690444

Diseinua: Ikuska Zerbitzua

ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA
Santa Maria plaza, 1 • Tel. 943 697 413 • Fax: 943 676 213
E-mail: tolosaldeatour@euskalnet.net • Web: www.tolosaldea.net

IBILALDIAK TOLOSALDEAN BARRENA

AMASA-VILLABONA

Kanaletako ibilaldia
15,5 Km.
PR-Gi 118

1 **Jesusen Bihotzaren eliza.** Itxura apaleko tenplua da. Oin laukizuzena du, dorrean erlojua dauka eta sarreran arkua.

2 **Kalatas** baserrian mende hasierako altzariak daude oraindik, eta baita su-bajua ere. Juan Antonio Ubillos idazlea jaio zen etxe honetan, 1889an.

Kalatas baserria.

3 Ibilbidearen zatirik handienean **kanala** bertatik doa; ingeniaritza lan bikaina da kanala. Kanalaren ederrak, ordea, badu alde ilun bat: urek gora egitean, animalia asko itotzen dira eta pago, haritz, intxaurrondo eta zuhaitz autoktono asko ateratzen ditu hondotik kanaleko uraren joanak.

Kanala.

4 **Gurbitza** paraje hauetan nekez ikusten den zuhaitza da, berez mediterraneo aldekoa baita. Kanaleko bidean badaude gurbitz bat edo beste. Gurbitzek hosto gogorrak dituzte, dizdiratsuak eta zerratutako lantza itxurakoak. Udazkenean lore zuri dilindariak izaten ditu, kutxa itxuran, eta aurreko urteko fruitu helduak ere bai, borobilak, pikordunak eta gorri biziak, karmin kolorekoak.

Gurbitzaren lorea.

5 **Aise-guneak.** Lasturko aise-gunean egurrezko mahai batzuk daude, baso bikain baten gerizpean eta aterpetxe baten ondoan. Komizarrekoa, berriagoa, Leitzarango autobidearen azpian dago, zuhaitz gazteen abaroan.

Lastur.

Amasa

6 **Amasa** da herriko landagunea. Amasaren bihotzean San Martin eliza, frontoia eta baserri batzuk daude; ohiko landa ingurunea, inguruan sakabanatutako baserri eta guzti. Tenplu erlijiosoak garai bateko gotorlekua gogorarazten du, horma altu eta sendoekin eta leiho gotiko txikiekin.

Amasako iturria

Ibilbidea elizaren atzekaldean hasi eta, hortik, Otsabi auzo aldera egingo dugu. Ezkerrean dagoen bidegorria igoko dugu, Fleming ikastetxeraino. Eskuineko bideari jarraituz, Kalatas baserri zaharrera helduko gara eta, bertatik, Arrieta eta Beheko Bordatik barrena, A-15 (Andoain-Iruña) autobiagaineko zubiraino. Lasturgo aise-lekura jarraituko dugu eta hortik Mandabietara; bertan, kanalerako bidea hartuko dugu. Kanalarekiko paralelo doan bidetik 6 km eskas egin ondoren, Ibarrolako errekara helduko gara; erreka zeharkatu eta, baso dotore batetik barrena, Urdausurbilgo bordara irtengo gara.

Bidexkari jarraituz, autobiaren azpitik pasatuko gara eta, aldapa igaro ondoren, hurrengo bi bidegurutzetan eskuineko bideei helduko diegu: Onddo-ko bordara joateko. Behean autobia ikusiko dugu eta, gasaren etxolara heltzean, ezkerrera jaisten den bidexka hartuko dugu; bidexkari jarraituz, Komizarreko aise-lekura eramango gaituen bidera irtengo gara. Asfaltatutako bidexkari jarraituko diogu, Amasara igotzen den bideraino. Hau hartuta Amasako plazan agertuko gara eta hemendik Villabonara herri-bidetik jaitsiko gara. 15 km. eta erdi ibili ditugu.

Trikua

Kanala

Iraupena
5 ordu

Luzera
15.500 m.

Desnibela
310 m.



1
2
3
4
5
5
6
POAT